

Amikuzeko ikastolaren 20. urteurrena gaur Donapaleun

J.L. / BAIONA

Donapaleu hirian dagoen Amikuzeko ikastolak gaur 20. urtemuga ospatu du. Gaur egun eskolaurrean eta lehen mailan 65 haur baldin badaude, duela 20 urte 24 haur ziren. Sasoi horretan Garruze herrian ireki zuten gurasoek ikastolako eskolaurrea.

Bart, jada mintzaldi bat antolatuta zuten irakasle eta gurasoek ikastolaren historia eta 20 urtez bizi izan dituen gertakari nagusiak gogoarazi edo ezagutarazi ziren bertara etorritako jendeari.

1971n Garruzen ikastolako eskolaurrea hasi zen eta 1977an lehen maila martxan jartzearekin batera, Donapaleu hirira etorri zen ikastola prefabrikatu batzuetara, hain zuzen ere. Ondoko urtea guztiz garrantzitsua eta mugikorra izan zen ikastolako kideentzat Frantziako administrazioak ikastola hertsia egin nahi izan zuelako, arrazoitzat emanez ikastetxeak ez zituela osasun araudiak betetzen.

Seaskako guraso, irakasle eta laguntzaileek eraman borroka azkar baten ondorioz, zutik iraun ahal izan zuten Amikuzeko ikastola. Borroka horietako gune garrantzitsuen eta adierazgarrien

izan zen bost mila jende inguru 1978an Donapaleuko karraketan manifestatzea.

GURASOEN LAN HANDIA

Gaur egun ere azpimarratu behar da ikastolaren bizi iturri gehienak guraso eta laguntzaileek daramaten lanetik datoztela, urte osoan antolatzen bait dituzte festa, kultur ekitaldi eta beste. Donapaleuko Herriko etxeak aurtan 3500 liberako laguntza eman dio ikastolari, iaz baino mila libera gutxiago, aurtan berogailu berri bat ezarri duelako. Inguruko herriek ematen duten laguntzaz ikastolak duen dirulaguntza bakarra hamar mila liberakoa dela agertzen da. Beraz, bostere publikoetarik kasik ezerez.

Gaurko egitaraua ikastolaren ate zabaltzeaz, bestalde, kirol animazioak izanen dira goizeko 9etarik aurrera. Hamaika t'erdietan aperitibo musikalaria eta kantariekin. Ondoren bazkaria. Arratsaldean Guk taldeak eta Jojo eta Ramuntxok kantaldia eskainiko dute eta gauean dantzaldia Franca Segas eta Xinaurri Gorri taldeekin. Egun osoan haurrentzat jokoak izanen dira. Kolondo Amestoi ere ipuin batzuk kontatuko ditu.

Hirukoitzeko alderdiek Hezkuntza Sailaren aldeko agiria osatu dute

Jaurlaritzaren irakaskuntza eta finantzaketa politikarekin bat datoza

EAJ, EA eta EE alderdietako Hezkuntza arloko arduradunek agiri bat kaleratu dute, Jaurlaritzak ikastolekiko duen politikaren aldeko jarrera agertzeko. **Gazteleraz argitaratutako agiriak Hezkuntza Sailak ikastolen irakaskuntza baimenaz eta iazko likidazioaz azaldutako irizpideak onetsi ditu.**

DONOSTIA

«Hezkuntza eredu propio bat lortzearen, aurrera jarraitzeko asmoa dugu» adierazi dute Eusko Jaurlaritzaren hiru alderdiek. Agiria Txomin Aurrekoetxea EAJko alderdikideak, Inmaculada Boneta EAKoak eta Koro Agote EEkoak sinatu dute.

«Hezkuntza eredu propio hori» lortzeko egun dauden sare ezberdinen artean «akordio zabala» lortu behar dela dio agiriak, «bakoitzaren ezaugarri bereziak lotuz sistema finko bat eratuzeko».

Oraingo hiru sareen arteko harreman eza eta kompetentzia amaitzea nahi dute hiru alderdiok. Ildo berean,



Diru laguntza gehiago eskatzen dute ikastolek zorrak ordaintzeko.

Euskal Eskola Publikoa eta zentru kontzertatuen hezkuntza sistemaren aldekoak dira. «Finantzaketaren analogia eta osagarritasuna oinarritzat duen hezkuntza eskaintza bakarra egotea da helburua» azaldu dute alderdiek.

Balioanizdun Batxilergo Bateria (BBB) irakasteko baimenaz «gobernu hitzarmenean» oinarritu beharra gogoratu dute alderdi hauek. «Errekurtoak ahalik eta hobeto erabiltzeko irakaskuntza eskaintzaren bikoiztasuna ebitatu egin behar du-

gu» irakur daiteke idazkian. Jaurlaritzak hauxe izan du kontutan plangintza hori osatzeko orduan. Hezkuntza Sailak indarrean jarri eta ikastolek sinatutako komenioei esker, ikastolen finantzaketa ikastetxe publikoekin parekatuko da hiru alderdion esanetan. Iazko aurrekontuei 1.249 milioi pezeta gehiago eransteko asmoa agertu du Hezkuntza Sailak. «Aurrekontua 13.147 milioi pezetakoa izango da guztira. Administrazioak hartutako konprometua bete nahi izan dugu honela».

Nafarroako Erregeen omenez ohizko ekitaldia egingo dute gaur Leiren

IRUÑEA

Gaur Nafarroako Erregeak omenduko dituzte Foru Erakundeek Leiren, urtero egin ohi den ekitaldian, eta bertan 1991ko 'Principe de Viana' Kultur Saria emango zaio Eugenio Asensio Barbarin hispanistari.

Egitarua, Nafarroako Gobernua, Nafarroako Parlamentuko Mahaia eta parlamentarien presentzia izango duena, goizeko 11,30etan hasiko da, Leyreko elizan egingo den meza batekin. Sarrera, mazukari eta alguazilek lagunduta egingo dute mandatariek, Nafarroako Himnoaren soinuz, eta meza bukatuta lore gorri sorta jarriko du Gabriel Urralburu Nafarroako Presidenteak erregeen hondakinak dituen kutzaren gainean.

Zangotzako Nora koralak, Fermin Iriarteren zuzendaritzapean, eta Leyreko Monastegiko mojeen koroak, Jose Antonio Pedroarena zuzendari dutela, abestuko dute mezan.

Ostean, aurtengo 'Principe de Viana' Kultur saria jasoko du Eugenio Asensio Barbarin murietarrik. Sari hori Nafarroako Gobernuak ematen du urtero, Nafarroako Kultur Kontseiluean aholkuei jarraiki, eta aurtan hispanistari ospetsuenetako aukeratu dute.

Eugenio Asensio, Murietan jaioa 1902. urtean, 1928an lortu zuen doktortatza Madrileko Unibertsitatean, Francisco de Quevedori buruzko



Leireko abadia.

tesiarekin. Berlin eta Pariseko Unibertsitateetan ikasketak osatu ondoren, Estatu Batuetako, Lisboako eta Europako hainbat unibertsitateetan aritu zen irakaskuntzan.

1937an, Espainiako Gerra Zibila zela eta, nahiago izan zuen Lisboan gelditzea eta bertan aritu izan da duela gutxi arte.

Asensio Barbarin 'Real Academia Españolako' ohorezko kidea da, baita Lisboako Zientzi Akademiako ere. 90 liburitik gora plazaratu ditu,

gehienak XV, XVI eta XVII. mendeko literatura, filologia eta pentsamenduaz.

Murietarrik Gabriel Urralburu lehendakariaren eskuetatik jasoko du saria eta ondoren, eguerdiko ordubatean, Agoizko San Miguel koralak eta Nafarroako Magisterioko unibertsitate koralak kontzertua eskainiko dute elizaren atarian.

Kontzertua amaitzean, hamaiketako herrikoia emango zaie bertara hurbiltzen diren guztiei.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

UNIBERTSITATE-IKASLEEN LOJAMENDU-ZERBITZUA

UPV/EHU lojamenduaren bilaketa erraztu nahi die unibertsitateko ikasleei ikasten duteneko Campusean bertan. Helburu honi heltzeko xedeaz. "Lojamendu-Zerbitzuak" lanean segitzen du zenbait urte pasa eta gero, ondoko lehentasunezko helburu hauek dituelarik:

1. Dagoen eskaintzaren informazioa zentralizatu, ikasleei lojamendu-aukera desberdinak eskainiz.
2. Ikasleak matrikulaturik daudeneko Campusean bizitzera bultzatu.

Ikasleei 91/92 ikasturtean zehar gelak edo pisuak eskaini nahi dizkieten jabeek beren datuak eman beharko dituzte Uztail eta Abuztuaren bitartean. Zerbitzu honez gozatu nahi duten ikasleek, berriz, Irailaren 16tik aurrera jaso dezakete informazioa.

ARABAN:

PISU-jabeek ondoko telefono hauetara jo: (94) 423 71 41/17; (94) 427 51 59/69.

IKASLEEK telefono hauetara jo ahal izango dute: (94) 423 71 41/17; (94) 427 51 59/69. (945) 23 04 90. (945) 23 06 98

Arabako Errektorordetzara, Manuel Iradier 6, behea, Gasteiz.

BIZKAIAN:

JABEEK ETA IKASLEEK telefono hauetara joko dute: (94) 423 71 41/17; (94) 427 51 59/69, Novia Salcedo, Urkixo Zumardia 62. 2. ezk. Bilbo

GIPUZKOAN:

JABEAK ETA IKASLEAK ondoko telefonoarekin jarriko dira harremanetan: (943) 42 60 05 Gipuzkoako Errektorordetza, Urbieta 30, Donostia.

MOETAK

HILABETEKO PREZIOAK

	Astelehen/Ostiral	Aste osoa
Pentsio osoa	36.000 pr/hil.	41.354 pr/hil.
Pentsio-erdia	28.000 pr/hil.	34.000 pr/hil.
Gela/sukaldea	16.000 pr/hil.	17.340 pr/hil.
Pisuak	akordatzeko	
Proposaturiko prezioak %+. 10a alda daiteke bizileku bakoitzaren berezitasunen arauera.		
Plazen erreserba hilabeteko baten aurretiko ordainaren bidez egingo da, gutxien dela ikastaro oso batetarako konprometuz.		

Adelaida Umanan Sánchez
Unibertsitate-Hedakuntza eta Ikaslegorako Errektorordea
1991ko Ekainean